

# Psycho 1960


## beldurrak odoleztatutako suspentsea



Hitchcock-ek artistikoki nahiz moralki manipulatu zuen ikuseria *Psycho* filmean. Marionen pertsonaiarekin identifikazioa sorraraziz lehendabizi, protagonistaren bizitzarekin amaitzeko geroago. Norman Bates-en pertsonaiaren baitara erakarri zuen segidan ikuseria, ondoren hura ere errefusarazteko eta benetako hiltzailea aurkitzeko jakinminari lehentasuna emateko. Bizitza orekatua desio ezkutuen errepresioaren baitan dago. Ikuslea, Norman bezalaxe, nortasun bikoitz baten jabe ere bada. Subkondizientean erbesteratutako nortasun ilun hori astintzen du Hitchcock-ek.

### Dutxaren eszena ikusgarriaren sekretuak

Janet Leigh hiltzen duteneko eszenaren filmaketak astebete iraun zuen. Zinemaren historia-ko erailketarik eza-gunenetako baten 45 segundoak filmatu ahal izateko 70 kamera posizio erabili ziren. Aipatu eszena horretan Janet Leigh aktoreari bizkarra, burua eta eskuak besterik ez zaizkio ikusten. Gorputzaren gainontzeko atalak biluztutako modelo batekin filmatu baitzituzten. Bularrak irudietan ager ez zitezten, plano batzuk kamera mantsoaz filmatu zituzten.



MR. HITCHCOCK

**Filma:** Psycho. **Zuzendaria:** Alfred Hitchcock. **Gidoia:** Joseph Stefano, Robert Bloch-en eleberria oinarri hartuta. **Musika:** Bernard Herrmann. **Muntaia:** George Tomasini. **Aktoreak:** Anthony Perkins (Norman Bates), Janet Leigh (Marion Crane), Vera Miles (Lila Crane), Martin Balsam (Milton Arbogast), John Gavin (Sam Loomis). EEBB, 1960.

Dutxaren sekuentziaren planifikazioa Saul Bass-en esku utzi zuen Hitchcock-ek. Hala eta guztiz ere, zuzendari britainiarrak berezitasun erantsi zizkion Saul Bass-en oinarritzko eskemari. Emakumea-

ren sabelaldean sartzen den labanaren plano azkarra eta dutxaren isurbi-dera isurtzen den ur odoleztatuaren planoak. George Tomasiniaren muntaia ezinhobeak eta Bernard Herrmann-en musika zirraragarriak are eta indar handiagoa eman zioten eszenari.

ren hastapenetan. Robert Bloch idazlearen *Psycho*-se eleberri arrunta oinarri hartuta, azken urteotako zinemagile gehienek filmak zipriztindu dituen maisulan bat sortu zuen Hitchcockek.

Klandestinoki baino elkar maite ezin duen bikote baten dramaturgiaren gaitu Hitchcockek hasierako eszenan. Zoriona diruaren esklabu da. Marion-ek 40.000 dolar lapurtuko ditut lanean ari den enpresatik, eta ihesari ekingo dio. Errepide abandonatu baten ertzean dagoen motel batera eramango du patuak. Norman Bates da bertako arduraduna. Ezustea izugarria da, Hitchcock-ek protagonista hiltzen baitu filmaren erdian.

### iñaki lazcano

Gus Van Sant-ek Alfred Hitchcock zuzendari handiaren filmik beldurgarriena berregindu. Euskal Herriko zinema aretoetan Van Sant-en *Psycho* ikusteko aukera izanen da aurki. Baina kopiari buruz hitz egin aurretik, zergatik ez ezagutu maisulana?

*Psycho* filmak Hitchcockek ordura arte eginiko zinemarekin apurtu zuen. Haren zineman ohikoak ziren voyeurismoa eta suspentsea ez ziren desagertu, ordea, erotismoz eta beldurrez tindatutako film iluna baitzen *Psycho*. Aurreko bi urteetan heriotzaren ferekak hurbil sentitu zituzten Alfred-ek eta Alma emazteak, eta horrek, nolabait, eragin handia izan zuen *Psycho*-

## esketxak



▲ Ibarretxe anaiak Sabotage pelikula filmatuko dute.

**Ibarretxe anaien azken sabotajea.** Ibarretxe anaiak *Sabotage* izeneko komedia filmatzen hasiko dira uda honetan. *Sabotage* nazioarteko ekoizpena da eta ingelesez errodaturik da. Istorioak Waterlooko Batailaren nondik norakoak kontatzen ditu umore eroz. Aktoreen artean Stephen Fry, David Suchet eta Dominique Pinon izango dira.

**Nagisa Oshimaren proiektu berria.** *Ai No Corrida* maisulanaren egilea zuzendari lanetara itzuliko da berriz ere. Duela hamabi urte egindako *Max, mon amour* filmaz gozotik, osasun arazoak zirela medio, ez du filmik

zuzendu. Apiril aldera *Gohatto* filma errodatzeari ekingo dio. Filmak samurai talde baten istorioa kontatzen du.

**Ados taldearen 'Desperrados' lana Donostian.** Ados antzerki taldeak *Desperrados* antzez-lana taularatuko du Donostiako Antzoki Zaharrean, bihar, etzi eta etzidamu, arratsaldeko zortzietan. Mende bukaerako gazte langabetuen egoera latza irribarrean galdu gabe salatzen duen

Desperrados obraren irudi bat. ▼

